

JOKOAK



ABUZTUA **3** AGOSTO



JOKOAK-ek 18 KIROL BILDUKO DITU HIRIKO 7 AGERTOKITAN

Donostia Kirolak abian jarri du Jokoak programa berria, arreta kirol ez hain masiboetan jarri nahi duena, edo denboraldian zehar beste kirol batzuen oihartzun mediatiko bera ez duten kirolean, baina, hala ere, funtsezkoak direnak Donostiako kirol-ekosistemaren aberastasunean.

Programaren izenak keinu bat egiten die Parisen jokatzeko ari diren Olinpiar Jokoei, hain zuzen ere, Jokoen ospakizunetan izaten delako kirol horietako askok hedabideen eta publiko zabalaren arreta jaso eta unerik ezagunena bizitzen dutenean.

"Jokoak izenak programaren planteamendu ludikoa eta parte-hartzailea ere aipatzen du, non jarduera guztiak doakoak eta irekiak diren; izan ere, helburua da kirol horiek publiko zabalago bati hurbiltzea, hobeto ezagutu eta goza ditzan", adierazi du Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotziak.

Jarduerak aire zabalean eta hainbat hiri-espaziotan egingo dira, hiri kirol-agertoki irekia eta parte-hartzailea eta kirol horiek bistartzeko eta zabaltzeko erakusleho izan dadin.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Baina, seguraski, Jokoak programaren gauzarik nabarmenena da Donostia Kirolaren eta hainbat kirol-klub eta -eragileren artean garatutako programa bat dela, "formula hori sustatzen jarraitu behar dugu, gure hirian kirola hobetuko duten proiektuak elkarrekin garatzeko", dio Gabarainek.

Programa abuztuaren 3an garatuko da hiriko zazpi lekutan: Gros, Egia, Boulevard, Alderdi Eder, Urumea, Zurriola hondartza eta Kontxa. 13 klubek eta kirol-eragilek 18 kirol-modalitate barne hartzen dituen programa bat eskainiko dute, besteak beste, atletismoa, hiri-kirolak, arte martzialak, ur-kirolak edo esgrima, baita esgrima egokitua ere.

Jokoak, gainera, jarraitzeko bokazioarekin jaio da, kirolen urteroko jaialdi bat eratzeko asmoarekin, kaleak hartu, gure kirolaren aniztasuna eta aberastasuna erakutsi eta hiriko kirol-eragileei beren proiektuak eta proposamenak ezagutarazteko aukera eskainiko diena.

Prentsa oharra

Nota de prensa



PROGRAMA OSOA

1. GUNEA

ESGRIMA & MAHAI-TENISA

KATALUNIA PLAZA (GROS)

10:00-13:00

Laguntzailea: C.D. Fortuna K.E.

Fortuna Kirol Elkartearen eskutik, eskrimaren hiru modalitate olinpikoetatik bi erakutsiko dira: sablea eta ezpata.

10:00etatik 11:00etara esgrimaren azalpena, mugimenduen eta ekintzen erakustaldia eta erakustaldi-borroka bat egongo dira, lehiaketa olinpikoaren sistema elektronikoarekin.

11:00etatik 13:00etara, parte hartu eta esgriman aritzeko aukera izango dute nahi dutenek, lau laguneko taldeetan (bi bikote). Gazteenek sablea egingo dute, eta helduenek ezpata. Une oro begiraleek lagunduko diete, mugimenduak azaltzeko eta arbitratzeko.

Mahai-tenisari dagokionez, bi mahai jarriko dira. 10:00etatik 11:00etara kirolaren arauak azalduko dira, baita ping pong herrikoia eta mahai-teniseko kirol olinpikoaren arteko aldea ere. Atal honetan entrenamenduko robotaren erakustaldia egingo da ere.

Bigarren zatian, 11:00etatik 13:00etara, doako eta parte hartzeko txapelketa bat izango da, binakako eta binakako mistoekin. Eta egunari amaiera emateko, jolas dibertigarri bat proposatzen da: Fortuna-erruleta.

2. GUNEA

HONDARTZAKO BOLEIBOLA & FUTBOLEIA & BADMINTONA

ZURRIOLAKO HONDARTZA

10:00-13:00

Laguntzaileak: C.D. Fortuna K.E., Futevolei Donostia, Aldapeta María Ikastetxea

Jarduerak Zurriolako hondartzan izango dira, 10:00etatik 13:00etara.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Fortuna Kirol Elkarteak hondartzako boleibola kudeatzeaz arduratuko da, Futevolei kluba futvoleyaz, eta Aldapeta María Ikastetxeak badminton jarduerak antolatuko ditu.

Hiru kasuetan ordutegia era berean antolatuko da:

10:00etatik 11:00etara klubetako kideek entrenamendu ariketak egingo dituzte.

11:00etatik 12:00etara erakustaldi partidak antolatuko dira.

12:00etatik 13:00etara publikoa kirol diziplina hauek probatzera animatuko da.

3. GUNEA

ATLETISMOA

Altuera-jauzia | Pisu-jaurtiketa | Hesi-lasterketa

ALDERDI EDER

11:00-13:00

Laguntzailea: Real Sociedad Atletismo Kluba

Realeko atletismo sailak olinpismoaren kirol erregeari eskainitako gunea dinamizatzeaz arduratuko da Alder Ederren. Hurrei zuzendutako proposamena da. Hurbiltzen diren hurrek salto modalitate bat (altuera-jauzia), jaurtiketa modalitate bat (pisua) eta lasterketako beste bat (hesiak) hobeto ezagutu eta goatzeko aukera izango dute.

Gainera, 11:30etatik 12:30etara hiru diziplinetako atletek erakustaldia egingo dute.

4. GUNEA

HIRI-KIROLAK

3x3 Saskibaloia | Skate

BLAS DE OTERO PLAZA (EGIA)

12:00-20:00

Laguntzailea: Gipuzkoa Basket

Prentsa oharra

Nota de prensa



Gipuzkoa Basket taldeak hiri-kirolen jardunaldia antolatu du Egian, Blas de Otero plazan, 12:00etatik 20:00etara.

Alde batetik, 3x3ko lehiaketa egongo da talde mistoen haur, junior eta senior kategorietan. Finalak 20:00etan jokatuko dira.

Bestalde, plazan berean, skate ekitaldi bat egingo da, Half Pipe pista bat instalatuz. Haur, junior eta senior mailako lehiaketak izango dira kasu honetan ere.

Umeentzako prestakuntza ikastaroa eta irristatze kirolen hastapenak ere eskainiko dira.

5. GUNEA

WATERPOLOA & IGERIKETA SINKRONIZATUA

NAUTIKOAREN ONDOAN

15:00-15:30 (Sinkroa) + 15:30-18:30 (Waterpolo)

Laguntzaileak: Easwim & Waterpolo Donostia

Leku oso berezi batean, Kontxako badian, Klub Nautikoarekin ondoan, igeriketa sinkronizatuko erakustaldi batez gozatu ahal izango da Easwim klubaren eskutik, 15:00tik 15:30era.

Bestalde, 15:30etatik 18:30etara, Waterpolo Donostia klubak waterpolo jarduerak eskainiko ditu: txapelketa laburrak, jokoak, ariketak, eta parte hartu nahi duenak bat egiteko aukera.

6. GUNEA

PADEL SUP & PIRAGUISMOA

URUMEA IBAIA (KOIPE ZENAREN PAREAN)

16:30-19:30

Laguntzaileak: Euskadiko Piraguismo Federazioa, Donostia Kayak, Kairoscore, Atlético San Sebastián

Jokoak-ek, halaber, ur-kirolen programa bizia proposatzen du arratsaldean Urumea ibaian, Euskadiko Piraguismo Federazioak koordinatuta eta Donostia Kayak, Kairoscore eta Atlético San Sebastián klubekin lankidetzan.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Jardunaldian K-4 eta K-2ko erakustaldiak izango dira, eta ondoren slalom, estilo libre, kayak surf eta piraguismoak ere.

Kairoscore klubak Padel SUPen jardunaldia koordinatuko du. Bertan, hastapen-klase bat, Urumea ibaitik jendearentzako ibilaldi bat eta Elene eta Unax Etxeberria errendimendu handiko kirolariekkin solasaldi bat izango dira.

7. GUNEA

ARTE MARTZIALAK & KONTAKTU-KIROLAK

Judo | Kendo | Aikido | Kick boxing

BOULEVARD

17:00-19:00

Laguntzailea: Judo Club San Sebastián

Judo Club San Sebastianek arte martzialen eta kontaktu-kirolen programa bat eskainiko du Boulevardean jarritako tatami batean, 17:00etatik 19:00etara.

Lau modalitateetako bakoitzak (judoa, kendoa, aikidoa eta kick boxinga) 15 minutuko erakustaldia izango du lehenik, eta, ondoren, beste 15 minutu irekita egongo dira ikusleek parte har dezaten.